15

ALBOAN




# IHES-aren inguruko mito eta errealitateak, ezagutu itzazu!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Saiburuordetza
*Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza*
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
*Dirección de Cooperación al Desarrollo*

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Objetivos de Desarrollo del Milenio
Milurtekoko Garapen Helburuak

Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko 9 komikiz osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (posterrak, mandalak, sakontzeko koadernoak…) eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

## Hezkuntza baliabideak ALBOAN

…

**10.** Lurra zoratuta dago! Soberan daukate
eta badago iristen ez zaion pertsonarik. (2008)

**11.** Posible duzu komiki hau irakurtzea? (2008)

**12.** Emakumeok ere hegalari. (2008)

**13.** Lurra: planeta arriskutsua haurtzaroarentzat. (2008)

**14.** Zure osasunerako, emakume! (2008)

**15.** IHES-aren inguruko mito eta errealitateak, ezagutu itzazu! (2008)

Egilea: Alphonse Twite
Argitaratzaileak: ALBOAN
Itzulpena: Elhuyar
Lege-Zenbakia: Bi-1120-08
ISBN: 978-84-612-2598-9
Azalako diseinu: Marra, S.L.
Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburua aipatzen baldin bada.

www.alboan.org

**Iruñea**
Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

**Bilbo**
Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

**Donostia**
Erronda kalea, 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org


GOIZ BATEAN, KAYANZA ESKUALDEKO PLATANO-SAILETAN...
AZKAR IBILI, JOSE, GAUR ALDE HAU AMAITU BEHAR DUGU ETA.
GAINERAKOAK EREITEN HASI DIRA DAGOENEKO.
AMA, GAUR GOIZEAN AHUL SAMAR NABIL, EZ DAKIT ZERGATIK.
HOR ATZEAN ZENBAIT PATATA DAGO HAR ITZAZU BATZUK, BEHARBADA ON EGINGO DIZUTE ETA.
NON?
HAN, IRRATI-TRANSISTOREAREN ONDOAN.
AMA, IRRATIAN ESAN ZUTENETIK BATIMBAYTARREK NAGUSI BATEN EMAKUMEA
BORTXATU ZUTELA, EZ ZARA IRRATITIK ALDENTZEN, E?
NOSKI, ALABA.
ASKO HUNKITU NAU. ETA GUZTIA GERRAREN ETA, BATEZ ERE, GIB/HIESAREN ERRUZ IZAN DA.
FAMILIETAN SARRASKIAK ERAGITEN ARI DA. ETA, NOSKI, NAGUSI ONAK TOPATU EZEAN, BEREHALA ERASO EGITEN DIE GERATZEN DIRENEI
INDARKERIAREN BIRUSAK, ERA GUZTIETAN.
BAI, ETA, ZER EGIN DEZAKEGU?


HORRELAKO EGOERAK BARETZEKO?
LEHENA, BURUNDIK DUEN KRISIALDI SOZIO-POLITIKOA
ERABAT DESAGERRARAZTEA ETA GOBERNUAK GAZTEEI
KULTURA- ETA BERREGITE-EKINTZAK LAN-EREMUETAN ESKAINTZEA DA.
GIB/HIESAREN AURREAN SENTSIBILIZATZEA LORTUKO LUKE GAINERA.
LANBIDE-IKASTEGIAK UGARITU BEHARKO LIRATEKE ESKOLATU GABEKO GAZTEENTZAT.
GAZTEENTZAKO ZENTZATEGI BAT SORTU, MOTA GUZTIETAKO INDARKERIAZKO DELITUAK ZIGORTZEKO.
GAINERA, ALDERDI POLITIKOEK GAZTEEN BIDEAK POLITIZATZEA SAIHESTU BEHARKO LUKETE.
ETA GURASOEK SEME-ALABEI TXIKITATIK IRAKATSI
GURE KULTURAREN FUNTSEZKO BALOREAK FAMILIA-ESKOLAN ARRATSALDEZ:
IBITITO, UTUJAJURO, AMAZINA, IMIGANI...
IKUSTEN, ALABA? GUTXI GORABEHERA HORIXE BEHAR DA HONELAKO EGOERAK BARETZEKO.


GEROAGO, JOSE BAZKALTZERA JOAN DA, ETA AMAK LANEAN JARRAITU DU.
HANDIK PIXKA BATERA
AMA, AMA, ENTZUTEN ARI ZARA IRRATIAN ESATEN ARI DIRENA?
ZER, ALABA?
HIESA!
A! ZUREKIN ENTZUNGO DUT PROGRAMA.
KONTUZ! KONTUZ! BURUNDIKO GAZTE ETA ZAHAR, GAIXOTASUN SENDAEZINA DA HIESA, GERRAK BAINO HERIOTZA GEHIAGO ERAGITEN DU ETA GUZTIOK HARRAPA GAITZAKE
2.500.000 AFRIKAR BAINO GEHIAGO KUTSATU DITU GIB/HIESAK. BATEZ ERE,
BI SEXU-HARREMAN MOTA DIRA IZURRITE HORREN ERRUDUN NAGUSIAK: ALDE BATETIK,
SARPEN BAGINAL ETA ANALEKO HARREMANA, BIRUSAREN INOKULAZIO-MEKANISMO OSO EZBERDINA DUENA.
BAGINA BIDEZ, EZ DA HAIN KUTSAKORRA, SOLAIRU-MUKOSA GERUZATU SANO BATEK BABESTEN BAITU.
BAINA OSO KUTSAKORRA DA UZKI BIDEZ,
3


INMUNITATE-DEFENTSA LOKALAK DIRELA ETA.
ETA EMAKUMEETAN KUTSATZEKO ARRISKUA BOST ALDIZ HANDIAGOA DA
UZKI BIDEZ BAGINA BIDEZ BAINO.
ETA HIESAK GEHIAGOTAN ERASO EGITEN DIE EMAKUMEEI.
AFRIKAN, GAUEZ TABERNETARA JOAN OHI DIREN GAZTEEN ERDIAK KUTSATZEN DIRA.
AMA, IZURRITE HONEK BELDURTZEN NAU. HEMENDIK AURRERA, AKABO BIKOTE-ISTORIOAK, EZKONTZEI BURUZKO HITZALDIAK...
MOJA SARTU NAHI DUT.
JAKINA, NAHI DUZUN BEZALA.
BAINA HORRETARAKO BOKAZIOA BEHAR DA. EZ DUZU KOMENTU BATEAN GORDE BEHAR HIESA SAIHESTEKO.
EZKONTZEN BANAIZ, AGIAN AZKENEAN NIRE SENARRA ENGAINATUKO DUT. EZIN DA JAKIN.
KASU HORRETAN ERRESPETATUKO DUGUN ETA ERRESPETATUKO GAITUEN GIZON BAT AURKITU BEHAR DUGU
BAT-BATEAN...
E, ENTZUN! EZ DU AMAITU...
AFRIKAN, HIESA DUTEN 10 PERTSONAKO
BIRUSA DUTEN ETA OSASUNEZ ONDO DAUDEN 1000 DAUDE. LABURBILDUZ, DEI EGIN DIEZAIEGUN BURUNDIKO GAZTEEI, BIKTIMARIK AHULENAK BAITIRA.


JAKIN DEZATELA HIESAREN AURKAKO BOTIKAK EZ DIRELA GIB/HIESAREN KONPONBIDEA.
ORAIN ARTE EZINEZKOA IZAN DA PERTSONENTZAKO ERABAT EGOKIA DEN KONPONBIDERIK AURKITZEA.
GIB/HIESAREN AURKAKO TXERTORIK EZ DAGO.
AMA, BERRIRO DIOTSUT, MOJA SARTU NAHI DUT.
ZER ELKARTETAN, ALABA?
KARITATEKO AHIZPA IZAN NAHI DUT.
BIKTIMEI LAGUNTZEKO...?
BAI, BESTEAK BESTE.
JOSE! AGINDUTAKOA BETE EGIN BEHAR DA, E!
EZ KEZKATU, AMA.
BAINA BAT-BATEAN...
ZER DUZU? MIN HARTUKO DUZU!
OOOH!
AMA, JESSICA DA, YAMAHOMVKEREN ALABA!
KARIBU, JESSICA! ASPALDIKO.
ZER MODUZ, JOSE?
BIKAIN ZAUDE.
ETA GAINERA, SOINEKO HORREKIN OSO EDER ZAUDE.
¡ESKERRIK ASKO!


JOSEREN AMA HARRITUTA DAGO.
ENE, NOLA ALDATU DEN!
¡ARIKO ABANA BO MU GISAGARA BARATEYE IMBERE! IYO MISHA TSI N'AMAVUTA...
BISHIRAKI NG/ AMA SHETANI / BA. ¿BIKUYE HE?!
HAHA HA
AAH HA HA
JESSICA, ZERGATIK EZ DIDAZU IDAZTEN?
EZ DAUKAT ASTIRIK! HIRIAN EZ DIOTE ELKARRI IDAZTEN
"POSTA ELEKTRONIKOAREN EDO APARATU ERAMANGARRIEN BIDEZ" KOMUNIKATZEN DIRA.
ZER DA HORI? BESTE IRRATI-TRANSISTORE MARKA BAT DA?
EZ. TELEFONO MUGIKOR BAT DA.
BESTE PERTSONAK TELEFONO MUGIKOR BAT BADAUKA, HAREKIN HITZ EGIN DEZAKET EDONON DAGOELARIK.
JOSE TXUNDITUTA DAGO: INOIZ EZ DU MUGIKOR BAT IKUSI.
ETA BUJUMBURAN ERRAZA DA TOPATZEA?
NOSKI, HAN GAUZA EDER ASKO DAGO.
ZU OSO EDERRA ZARA, ETA, HARA BAZOAZ, JENDE ASKO ETA GAUZA POLIT ASKO EZAGUTUKO DITUZU.
A!
HEMEN, LANDAN, ZORIGAIZTOKOA HILKO ZARA.
ETA NOIZ JOANGO ZARA?


BI EGUN BARRU NAHI BADUZU, NIREKIN ETOR ZAITEZKE.
BAI, DE ACUERDO.
BESTE GAUZA BAT. BA AL DAKIZU EZER NINA BIJOUX, JENNIFER, CARINE ETA SANDRAZ?
A, EUROPAN DAUDE DENAK.
ETA NI KANADARA JOANGO NAIZ APIRILEAN.
¡MANA NI JEWE GU SA NSAMA YE!
JOSE, BIZITZA AZKARREN DOANARENA DA!
JOSE ZORIONTASUNEKO EGOERA BAT IRUDIKATZEN HASI DA.
¡EH, BUJUMBURA NI HAZURI KWELI!
KOMENTUA, LANDA, OILOAK... ORRATZ BAT ITSASOAN BEZALA DESAGERTZEN DA DENA.
ORAIN EDO INOIZ EZ; GORAINO HELTZEKO ETA ABERATS IZATEKO AUKERA DA!
HANDIK PIXKA BATERA...
AGUR, JOSE! GAUEAN EGONGO GARA, E?
BAI, GERO ARTE!
BIDE OSOAN ZEHAR, HERRITARREK YARAHOMUYEREN ALABA JESSICARI BAINO EZ ZIOTEN BEGIRATZEN, BERE JANZKERAGATIK.
JOSE IKARATUTA DAGO.
AMA, ESAN DIZUT GAUR EZ NAGOELA ONDO.
ETXERA NOA.
JOSE BADOA ETA AMAK BEGIRADA GOIBELAREKIN JARRAITZEN DIO.
EGINGO NUKE APUSTU EZETZ MOJA SARTU.
7


BADAKIT AMAK EZ DIDALA UTZIKO BUJUMBURURA JOATEN.
EGIN DEZAKEDAN GAUZA BAKARRA DA BILLETEA EROSTEKO DIRUA HARTZEA.
ARRATSALDEAN, 17:30ETAN, AMAK ZELAIA UTZI DU...
ALLELUIA! ALLELUIA!
ETXERA HELTZEAN, ALABARI DEITU DIO.
¡JOOO... JOSE... JOSEPHINE!
INORK EZ DU ERANTZUTEN.
HARA, JESSICAREKIN JOANGO ZEN.
ADISKIDETASUN-MOTA HORI EZ ZAIT BATERE GUSTATZEN,
TIRA.
GEROAGO, GAUEAN, AFALTZEKO ORDUAN.
JOSE, BA AL DAKIZU ZERGATIK DEITZEN DIOTEN HORRELA YARAHOMVYE JAUNARI?
ALABA JESSICAREN ZORIGAIZTOENGATIK BERAZ, EZ ZAITEZ HARENGAN FIDATU
HEMEN HERRIAN ERE ATERA DEZAKEZU BIZIMODUA. GOGOZ EKIN BEHAR ZAIO BAINA...
ESAERA KIRUNDI BATEN ARABERA, "PRESAK EZ DAKAR ARRAKASTARIK".


AMAK EMAN DIZKION AHOLKUAK ENTZUNDA ERE, EZER EZ DA ALDATU JOSERENTZAT.
OHEAN, AMETSETAN, HIRIAREN ERAKARGARRITASUNA BAINO EZ DU IKUSTEN.
RRRR
"E" EGUNA HELDU DA. JESSICA ETA JOSE ABIATZERA DOAZ.
JOSE, HOR DAGO AUTOBUSA!
BIDEAN, JOSE OSO POZIK DOA HIRIRA DOAZELAKO.
ZER ONDO, BANOA!
AMA BORDAREN ATZEAN ZEGOEN, AITZURRA ZORROZTEN ETA ALABARI DEITZEN.
¡JOOO... JOSE... JOSEPHINE
BEREHALA, BORDAN SARTU DA JOSEREN BILA.
ZORTE TXARRA; ARROPA DESAGERTU DELA IKUSI DU.
¡¡MANA, YAMANUTSE!!
"¡YEMWE, ICO GISAGARA AHURUMBIYE KIZOMUNU MINA!"
EGUN HORRETAN, ANDRE ZAHARRA EZ DA LANDARA JOAN, ALABAZ KEZKATUTA DAGO ETA.
SIDA NAYO NGO: LAZAHE UKAJAHE IRAMUCAKIRA ... IRAMUCAKIRA...


DIP! DIP! DIP!
ENE, NOR OTE DA ORDU HAUETAN?
BAI? ... HOW ARE YOU, MY DEAR? ... YES ... I'M COMING ... WAIT FOR ME... KISS.
INGELESEZ HITZ EGITEN ERE IKASI DUZU?
JESSICA, NORK DEITU DIZU?
MUTIL HEGOAFRIKAR OSO ALAI BAT DA, ETA NIREKIN GERATU NAHI DU.
BAINA DIRUA BADAUKA ETA ZUREKIN TXORA-TXORA EGINDA BADAGO... ZERGATIK AURPEGI HORI?
BAI, BAINA ASTAKILO BAT DA. GORROTO DUT.
HANDIK PIXKA BATERA, GIDARIAK IRRATIA PIZTU DU...
OSO GARRANTZITSUA DA GIB/HIESA DUTEN PERTSONEK JAKITEA BESTEEI KUTSATZEA NOLA SAIHESTU
ETA BEREN OSASUNA ZAINTZEKO AHOLKUA JASOTZEA.
SEXU BIDEZ KUTSATZEN DIREN ARRISKU GUZTIETATIK BABESTEKO MODUA HAUXE DA:
SEXU-HARREMANIK EZ IZATEA EDO BABESEN BAT ERABILTZEA. ETA ORAIN, HITZ EGIN DEZAGUN ELTXOEZ:
KOMUNITATEKO KIDE GUZTIEK ELTXOETATIK BABESTU BEHAR DUTE; IZAN ERE, ELTXO BATEK
PALUDISMOA KUTSA DEZAKE. OHEETAN ELTXO-SAREAK ERABILI. ETA ATE ETA LEIHOETAN ELTXOEN KONTRAKO BABESAK JARRI,


ETXE BARRUAN DAUDEN ELTXOAK ETA LARBAK AKABATU, ETA UR GELDIA
DUTEN LEKUAK DRAINATU ETA BETE BEHAR DIRA: HOBIAK, URMAELAK, ZINGIRAK, ESTOLDAK... ETA ETXEETARAKO SARBIDEAK GARBITU...
GIDARI, KENDU HIESARI BURUZKO ISTORIO HORIEK... ETA JARRI MUSIKA, MESEDEZ.
OSO ONDO, ORAINTXE BERTAN. LANBIDE HONETAN, BEZEROAK DAUKA ARRAZOIA
BEREHALA JARRI DU MUSIKA.
BARARUHIGA AJAYE ITONGO... AVUYE IWARO YSHANVUREUE IBUJUMBURA...
JOSE ETA JESSICA DANTZAN HASI DIRA.
SIDA NAYO NGO: LAZAHE UKAJAHE IRAMUCAKIRA ... IRAMUCAKIRA...
JESSICA, BAI POLITA ABESTI HAU!
BAI, JOSE.
HOU! HOU!
HANDIK PIXKA BATERA, HIRIBURURA HELDU DIRA...
JOSE, NI ALDE HONETAN BIZI NAIZ. "BWIZA, GIRORIK ONENA" DEITZEN DA.
BAT-BATEAN, JESSICA LAGUNAK AGERTU DIRA.
¡KARIBU!
JESSICA, NOLA DEITZEN DA ZURE LAGUNA?
JOSÉPHINE BARARUHIGA; GELDO SAMARRA DA.
HIRIKO GAUZA HARRIGARRIAK IKUSTERA ETORRI DA. KAR, KAR, KAR.
A, ERAKUTSIKO DIZKIOGU, PRIMERAKO MUTIL BAT BILATUKO DUGU, EGUNEAN JAR DEZAN. KAR, KAR, KAR.
ETXETXOAN...
UFF, BIDAIAK LUR JOTA UTZI NAU. ETZAN EGINGO NAIZ TARTE BATEZ.
NI ERE BAI.


ARRATSALDEAN, 17ETAN.
JESSICA, NOLA LOR DEZAKET MUGIKOR BAT?
ITXOIN, DEITUKO DIOT
BAT LORTUKO DIZUN LAGUN BATI.
BAT-BATEAN...
BAI? JULES, ATERA EGIN BEHAR DUT GAUEAN, ADOS... ETORRI BI... ADOS.
JOSE, BEREHALA ETORRIKO DA.
HANDIK 15 MINUTURA JULES ETA HAREN LAGUNA ETORRI DIRA.
HAHA HAHA HAHA HAAA HA HA HA
DIRU ASKO DAUKA.
YUHU... BA AL DAGO INOR?
TOC
BAI, SARTU
ETA ELKARREKIN ATERATZEA ERABAKI DUTE LAUREK.
HA HA HA HA HA HA HA
AZKENEAN DISKOTEKA BATERA JOAN DIRA.
LAZTANA, GOAZEN GAUA ELKARREKIN PASATZERA ETA BIHAR MUGIKOR BAT LORTUKO DIZUT.
ADOS!
HOTEL BATERA JOAN DIRA.
HOTEL KARI
12
BIHARAMUNEAN...
ESKERRIK ASKO GAUA NIREKIN PASATZEAGATIK. LASTER ARTE
ESKERRIK ASKO ZURI, ETA BESTE BAT ARTE.
BESTE GELA BATEAN.
GERO ARTE, JESSICA.
GERO ARTE.


JOSE, ZER MODUZ GAUA?
BIKAIN!
HANDIK HILABETE BATERA, ZORITXARREKO MUNDU BATEAN MURGILDU ZUEN JESSIKAK BERE LAGUNA, DENBORA LUZEZ,
HOTEL
ETA GAU GEHIEGITAN. ETA AZKENEAN, BORTXATU EGIN DUTE JOSE "BATIMBAITARREK".
KENDU ARROPA EDO HILKO ZAITUT!
UTZ NAZAZUE BASATIAK!
ZOAZ, PUTA NAZKAGARRIA. MEREZI ZENUEN!
GOIZ BATEAN, ONDOEZIK ESNATU DA JOSE.
HAU BURUKO MINA!
HANDIK EGUN BATZUETARA, EZTULKA HASI DA.
HEU! HEU!
ETA EGUN HORRETATIK AURRERA, ARGALTZEN ETA SOINEKO LASAIAK JANZTEN HASI DA, ARGALTASUNA EZKUTATZEKO, BAINA OSASUNEZ OSO TXARTO JARRAITZEN DU.
JESSICA, ZERGATIK UTZI NAUZU OHEAN BAKARRIK HAINBESTE EGUN?
BADAKIZU GIZONEKIN OHERATUZ LORTZEN DUDAN DIRUAZ BIZI NAIZELA. GAINERA, ETXERA ITZULI BEHAR DUZU, OSO GAIXORIK ZAUDE.
JESSICA, HIESA HARTU DUT, ETA BIHAR HILTZERA ITZULIKO NAIZ ETXERA.
NIRE FAMILIARENGANA. KONTUZ IBILI.
ESKERRIK ASKO AHOLKUAGATIK.
13


BIHARAMUNEAN JOSE KAYANZARA DOA.
ZAINDU.
BAI, ONGI JOAN.
MALETA BATEKIN JOAN ZEN HIRIRA JOSE, ETA ORAIN, ARROPA POLTSA BATEAN GORDETA ITZULI DA HERRIRA.
HEU HEU HEU
LASTER HIL EGINGO NAIZ...
HAU BELDURRA!
HEU HEU HEU
ZERGATIK EZ OTE NION KASURIK EGIN AMARI?
BIDEAN, HAINBAT SENTSAZIO SORTU DIZKIO JOSERI BERE DRAMAK: LOTSA, HASERREA, ETSIPENA, BELDURRA, ERRUDUNTASUNA, BAITA SUIZIDATZEKO GOGOA ERE.
AGUR AMA, AGUR LAGUNAK, AGUR MUNDUA.
EZ DU NAHI INORK IKUSTEA.
EZ DUT NAHI INORK IKUSTEA.
HAIN HOTZ NAIZ ETA HAIN NEKATUTA NAGO...
ETXERA HELTZEAN, AMA IKARATU EGIN DA ALABA HEZURRETAN IKUSTEAN.
AMA!
SUSMATZEN NUEN!
JOSE, ZER DUZU? ZERGATIK ITZULI ZARA EGOERA HONETAN?
ETXERA HELTZEAN, AMA IKARATU EGIN DA ALABA HEZURRETAN IKUSTEAN.
AMA NEGARRETAN HASI DA.
EGIN LO HEMEN.
SNIF. SNIF. SNIF
GEROXEAGO...
AMA, BADAKIT HASERRE ZAUDELA BAINA BARKA IEZADAZU.
BORTXATU EGIN NAUTE. LASTER HIL EGINGO NAIZ, HIESAK JOTA NAGO ETA.